



# 2015-2016 ikasturteko Lehen Hezkuntzako

## 3. mailako barne-ebaluazio

### diagnostikoaren inguruko hainbat galdera

#### 1. Zergatik egiten da Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa?

Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren markoak Lehen Hezkuntzaren etapa erdian barne-ebaluazio diagnostikoa egitea aurreikusten du. Helburua ikaskuntza prozesuaren egoera ezagutzea eta emaitzetan oinarrituta hobetzeko plana egitea da.

#### 2. Zertarako egiten da Lehen Hezkuntzako barne-ebaluazio diagnostikoa 3.mailan?

Ikaskuntza-prozesuaren egoera ahalik eta azkarren diagnostikatzeko eta behar diren neurriak hartzeko.

#### 3. Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoak ba al du oinarri pedagogikorik?

Bai. Lehenengo dokumentuan (Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren araberrako ebaluazio eredu propioa) ebaluazio ereduaren oinarri pedagogikoak aurki ditzakezu.



**4. Zein ikastetxetan egingo da Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa ikastetxe guztietan egin ahal izango da.

**5. Nork diseinatuko du Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoaren diseinua ikastetxeen esku dago, betiere hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa kontutan hartuz. Horretarako, ISEI-IVEIko adituen laguntza izango dute.

**6. Zein irizpideren arabera diseinatuko da Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazioa egin ahal izateko ISEI-IVEIk diseinua egin du. Ikastetxeen esku dago orain eredu horri jarraitu, eredu hori egokitu edo bere eredu propioa egin, betiere hezkuntza eredu pedagogikoaren ildoak jarraituz.

**7. Zein informazio emango zaie ikastetxeei eta familiei?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egin ahal izateko behar duten informazio guztia.

**8. Nola jakin araziko zaie ikastetxeei Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoaren inguruko informazioa?**

ISEI-IVEIren, Berritzeguneetako aholkularien eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskutik jasoko dute 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egin ahal izateko informazioa.



### **9. Noiz egingo da Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa noiz egin erabakitzea ikastetxeari dagokio, hezkuntza-zerbitzuek eskainiko dizkioten gomendioak entzun ondoren.

### **10. Ba al dago eperik Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egiteko?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa barne-ebaluazioa da. Ikastetxeari dagokio noiz egin erabakitzea eta horretarako hezkuntza-zerbitzuek gomendioak eskainiko dizkiote.

### **11. Nork zuzenduko du Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa barne-ebaluazioa da eta ikastetxeko irakasleei dagokie ebaluazioa zuzentzea.

### **12. Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoaren emaitzak non publikatuko dira?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoaren emaitzak ez dira publikatuko.

### **13. Emaitzak publiko egin nahi dituen ikastetxeak aukera izango du publikatzeko?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa barne-ebaluazioa da eta hobekuntza du helburu. Emaitzak ezin dira publikatu.

### **14. Zein funtzio beteko dute Berritzeguneek?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egin ahal izateko, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eskaintzea dagokie Berritzeguneetako aholkulariei.

**15. Zein funtzio beteko du Ikuskaritzak?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoaren ezaugarriak azaltzea, eta barne-ebaluaziotik sortzen diren Hobekuntza Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

**16. Derrigortuak daude ikastetxeak azterketa hau egitera?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa barne-ebaluazioa da. Ikastetxeak dira ebaluazio horren arduradunak. Ikastetxeei dagokie nola eta noiz egin erabakitzea, horretarako hezkuntza-zerbitzuek informazioa eta aholkularitza eskainiko dizkiete.

**17. Derrigortuta daude ikasleak Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egitera?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa, barne-ebaluazioa da, ikastetxean egiten den beste ebaluazioak bezala. Erabaki hori ikastetxeari dagokio.

**18. Ikasleren batek Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostiko egunean egongo ez balitz, ebaluazioa beste egun batean egin beharko luke?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa barne-ebaluazioa da. Ikastetxeari dagokio barne-ebaluazioaren antolaketa, egiten diren beste ebaluazioen kasuetan bezala.

**19. Ikasleren batek Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egingo ez balu, zein ondorio izango luke?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostiko barne-ebaluazioa da. Ikastetxeari dagokio horretaz erabakia hartzea.



**20. Irakasle batek bere kabuz erabaki dezake Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa ez egitea?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa barne-ebaluazioa da. Erabakia ikastetxe osoari dagokio, eta irakasle batek ezin du bere kabuz edozein barne-ebaluaziori buruz horrelako erabakirik hartu.

**21. Familia batek bere alabari edo semeari Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egiteko baimena ukatzen badio ikastetxeari, zer egin beharko du ikastetxeak?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio diagnostikoa barne-ebaluazioa izanik, erabakia hartzea ikastetxeari dagokio.

**22. Zer egingo du Hezkuntza Sailak Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egiteari uko egin nahi dioten familiekiko?**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa egitearen onurarekin beharrezko informazioa familia guztiei emango die.

**23. Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleak txikiegiak dira horrelako ebaluazio bat egiteko?**

Edozein ebaluazio ikasleen adinera egokituta egon behar da beti. ISEI-IVEIko adituen eredia testatuta eta egokituta dago adin honetako ikasleei.

**24. Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoa errebalida bat da?**

Ez. Hobekuntza Plana egiteko balio du eta ez hurrengo mailara promozionatzeko.

**25. Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio diagnostikoak ba al du ondorio akademikorik?**

Ez. Ikasleen eta ikastetxearen hobekuntzarako balio du bakar-bakarrik.